

**DE AVIONES Y MAIZALES**  
**TIERRA DE DURANGO**  
**URKIOLA, 20 URTE**  
**ETORKINAK**

**astola**

**ikerketa eta historia**

DURANGALDEKO  
URTEKARIA

3 zk. 2009  
5€



# BARRUKO IBILBIDEAK

ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA**


Nuestra ruta de este año no aparece en las guías turísticas ni montañeras. Nuestros cinco invitados nos conducen en esta ocasión por los sutiles senderos de la memoria. Son lugares pequeños, lugares íntimos y especiales para ellos. A menudo, asociados a la infancia, "nuestra única patria" en palabras del gran poeta Rilke. Todos tenemos "un lugar en el mundo". Para algunos es el sitio de donde venimos. Otros, quizá no lo hemos encontrado todavía.

Para ellos, está en Durangaldea.










Bizitza osoan leku bati lotuta sentitu naiz, leku hori Zaldibarko Abesbatza Elkartearen lokala izan da.

Haur nintzela orduak eta orduak eman nituen bertan, aitzak armagin lanean nola jarduten zuen begira. Gerora, marrazki artistikoko akademia ireki zuten bertan, eta ni hango ikasle izan nintzen.

1945ean, Abesbatza Elkartea sortu nuen, eta hementxe bertan izan ninduen zuzendari ia 40 urtez, kultur jarduera handian murgilduta.

**BALENDIN LASUEN** ZALDIBAR



Zenbat arratsalde aspergarri pasatuko  
ete nebazan Abadiñoko elizpean!

Amak behin esan egin eustan urteekin  
gogominez akordatuko nazela joaniko  
denboragaz, edozelangoa izanda be.  
Eta halan da.

Orain Elizpeko argi-ilunak, hango  
olgetak, arineketak eta barreak  
baino ez jataz etorten gogora.

**JASONE AGIRRE** ABADIÑO








Sarria. Lehengo bizimodu ta bizi-ikuspegiaren azken taupaden  
lekuko izateko aukera eskeini eustan labe samurra.

Nire barrenaren ongarria. Geneukanean, antzik be ez; ez  
daukagunean, hara hor, galdutakoaren samina.

Ikasiko ete dogu inoz?

**FELIX ARKARAZO** SARRIA





Umetako sasoieta joan behar dot txoko maitagarri bat bilatzeko.Hori kurutziaga da. Ez oraingo Kurutziaga. Zenbat aldiz olgau dot kale horretan, Tomas Txikidxe zeritzon etxe aurrean, gaur Erdoizak eginiko etxean eta jesuitek egindako gehigarria dagoen lekuan egoana!

Etxe aurrean horma bazu bat egoan zulo batzuk zituena eta han iturriko uraz eta lurraz "mantekauak" egiten genduzan. Gauetan aittittegaz joaten ginen beti ura zeriola zegoen iturriko ura edateko, pitxer baten etxera eroateko, bertako tilo ederren garauak jausi ahala jateko... Zenbat oroimen...!







Mundu honetan nire bihotz muinetan sartutako tokirik izatekotan, nire gurasoena izan zen oinetako-denda dela esan behar.

Bertan, ezkondu aurretik, nire aita izango zena ama izango zenarengana joan zeneko baten, ama bakarrik gabe, honen aitarekin aurkitu omen zuen. Zer esan ez zekiela, oinetakoen zintak eskatzea besterik ez zitzaion bururatu. Orduantxe ezagutu ei zuen bere suina izango zena nire aitita izango zenak, amaren aitak.

Handik bost urtera, hiru urte nituela, denda horren ondotik igaro ginen ama eta biok, estu eta larri, Kalebarriko etxetik irtenda, Durango suntsitu zuen bonbardaketari ihes egiteko asmoz, nire bizitzako lehenengo oroitzapenak azaltzen didanez.

Denda horretan jardun dute oinetakoak saltzen nire gurasoek bizi guztian.

Orain ere etxeoak jarraitzen du.

Zenbat barru barruko gogorapen txoko horretan!

**JUANITO GALLASTEGI** DURANGO